

Iker Pia Unanue

Emaila • 2 saria



Kaixo!

Ni Iker naiz, 10 urteko mutil beasaindarra. Aurten La Salle ikastetxean 5. maila egiten ari naiz, eta kirol asko ditudan arren gogoko, nire zaletasun handienen artean futbola aipatuko nuke. Izan ere, nire lagunek eta nik, baloi bat nahikoa izaten dugu edozein kale-bazter futbol-zelai bihurtzeko. Bideojokoetan ibiltzea ere asko gustatzen zait, nahiz eta hau dela eta etxean hainbat iskanbila izaten ditudan.

Sari hau munduan jolasteko astirik gabe bizi diren haur guztiei eskaini nahi nieke. Ea gustukoa duzuen.

FAIRTRADE

- Oraindik txikia zara,handiagoa egitean ulertuko duzu!

Askotan entzun dut esaldi berbera.Izan ere,umeoi zenbait gauza ulertzea kostatzen zaigunean,helduek era erraz horretan gaiez aldatzeko joera izaten dute.Eta egia esan,niri behintzat, askotan ondo etortzen zait,horixe bai da errazena, "egunen batean ulertuko dut "pentsatu,paso egin, eta beste gauza batean hastea.

Baina bada aurreko batean eskolan azaldu ziguten kontu bat,nire buruan paso egin ezinean gelditu dena.Izan ere,emakume hile hori hark azaldu zigunak benetako egonezina eragin zidan, gauzak horrela izanik,mundua sekula ulertuko ez nuenaren irudipena sortuz.

Eguerdi hartan,etxera iritsi nintzenean,nire amari galdetu nion:

- Ama,zuk badakizu zer den bidezko merkataritza?
- Bueno - erantzun zidan amak - Zerbait entzun dut horretaz.
- Eta guk,mota horretako produktuak erosten ditugu?

Ziur nengoen erantzuna ezezkoa izango zela,baina nire amak badu ni harrituta uzteko dohain berezi bat, eta hala esan zidan:

- Ba begira,guk lanean bi kafe makina ditugu,bata normala eta bestea merkataritza justukoa, eta gure taldeak,beti, makina horretatik hartzen dugu hamaiketako kafea.

Gehienetan bezala,orduan ere presaka zebilen nire ama eta ez genuen elkarriketa gehiago luzatu.YouTuben begiratuko nuela pentsatu nuen.Tableta ostirala arte debekatua izaten dut, "engantxatua" omen nago,beraien esanetan,beraz egongelan dugun ordenagailura jo nuen.

Lehenik euskaraz,gero gaztelaniaz,eta ingelesez ikusi nuen bideorik ere izan zen.Kafe,te, nahiz kakaoarekin,azukre,ezti eta arrozarekin,niretzat hain ezagunak ziren hainbat eta hainbat

produktuekin gertatzen zen.Guztietan lurralde txiroetako jende apala ikusten zen,goizetik gauerainoko lanaldietan,oraindik txikia izanik ere antzemateko gai naizen baldintza penagarrietan lanean.

Futbolak nigan eragiten duen erakarpen botere berezia dela eta,han eta hemen bideoak, albisteak,irudiak... ikusten ari nintzela,nire adin ingurukoa zirudien mutil beltzaran baten argazkiak arreta egin zidan.Esku batean futbol-baloia bat zuen,bestean berriz baloiaren kolore berdineko haria zulotik pasata zeraman jostorratz handi samar bat.Bere begiradak tristea zirudien,goibela, atsekabetua,bizitzeko gogo aspaldidanik galdua izango balu bezala.Ez zen ez, bere keinua,guk partidua bat jokatzera goazenean izaten dugunaren tankerakoa.

Argazkian klikatu eta mutil haren berri jakin nahi izan nuen.Akbar izeneko mutiko Pakistandarra zen. Eskuetan zuen baloia,FIFAk erabiltzen duenetako bat,eskuz josten du Akbarrek, guztira 690 puntada eman behar dituelarik.Interneten irakurri ahal izan nuen,jostun hauen diru-sarrerak egiten dituzten baloi kopuruaren baitan daude,ez lan orduen arabera,beraz beste hainbatek bezala,Akbarren gurasoek ere, bera eta bere anai-arrebak lanera bidaltzea beste erremediorik ez dute bizimodu duin bat izateko behar dituzten premiazko gaiak lortzeko.Izan ere baloi hauetako bakoitzagatik 50 zentimo inguru jasotzen dituzte,guztia josteko hiru ordu inguru behar dituztelarik.Hau horrela izanik,Akbarrek ezin du eskolara joan,ez gure adineko mutiko batek gustuko dituen jarduerak egin, zer esanik ez jolastu.

Matematikako irakasleaz gogoratu nintzen bat-batean.Zatikiekin gora eta behera egunak generamatzen eta matematika eguneroko ekintzekin lotzea asko kostatzen zaigun arren,aldi hartan, Akbarrek irabazten zuenaren eta guk baloia ordaintzen genuenaren arteko zatiki bidezko irudi bat marraztea erabaki nuen.Akbarren irabazia zatiki osoaren puska txiki-txiki batean besterik ez nuen margotu ahal izan! Non zegoen beste diru guztia? Ez nuen ulertzen.

Ordenagailua itzali eta nire gelara joan nintzen,baloiak gordetzen ditudan lekura.Ezaugarri bat ikusi nahi nuen nire baloietan,seinale bat, lerro biribilez osaturiko ikur berde-urdina. Goitik, behetik,hemendik,handik... begiratu nien,baina baloi haietan ez zegoen nik desio nuen markaren arrastorik.Akbarri bizi izateko denbora eta ilusioa kentzen zioten baloia ziren haiek!

Giltzak hartu eta garajera jaitsi nintzen.Han beste sei bat baloi badituzte,zaharragoak.Agian haietan bai! Nire bihotza inoiz baina azkarrago zebilen,baina alferrik,ez genuen Akbar bezalako haurrei lagunduko zien moduko baloirik etxean.

Lauzpabost aste pasa dira eskolan hitzaldi hura izan genuenetik.Ordutik,zenbait ostiraletan,iPada nahiz PS4a hartu dezakedan ordu desiratua iristen denean,ez naiz ziztu bizian ostiko,tiro eta borroketan murgiltzen Clash Royale edo Call of Duty modukoetan.Horren ordeaz, askotan,nahiago ditut munduko beste errealitate batzuk ezagutu.Ehunka bideo,argazki eta albiste ikusi eta irakurri ditut hain harriturik utzi nauen gai honi buruz eta denbora tarte honetan hainbat gauzaz konturatu naiz:mundua denontzat justua izatera iristeko ezinbestekoa litzatekeela denok elkar errespetatzea eta herrien artean bidezko merkataritza harremanak lantzea,baina mundu hori diruaren mende dagoen bitartean, guzti hori ezinezkoa suertatzen zait,eta Akbar bezalako askok etorkizun beltza izango dute.

Atzo,nire gelako egutegian,maiatzeko bigarren larunbata gorriz biribildu nuen.Hemendik aurrera egun berezia izango da hau niretzat eta behar bezala ospatuko dut.Gero,nire arrebaren post-it ponpoxo horietako bat hartu eta letra handi eta garbiz, bertan, Fairtrade hitza apuntatu nuen.

- Ama,hemen uzten dizut nahi dudan hurrengo baloiaren marka.Gorde ondo zure karteran. Ez dut besterik nahi. Hori izan behar du.

- Baina berriro horrekin al zaude? - erantzun zidan amak harridura aurpegia jarritz.

Eta beste ezer esateko astirik eman gabe, ni aurreratu nintzaion.

- Bai, txikia naiz,baina ehun urte gehiago izanik ere,ez dut ulertuko,inoren buruan sartzen ez diren gauzak egiten bai dira munduan!